

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

429/2021 Foru Agindua, azaroaren 9koa. Deialdia, Ondare Eskualdaketa, eta EJDen eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergen Atalaren buru lanpostua (kodea: 1086.001) berariazko lehiaketa bidez betetzeko

Ogasun Zuzendaritzak eskatzen du Ondare Eskualdaketa, eta EJDen eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergen Atalaren buruaren lanpostu hutsa betetzeko. 1086.001 kodea du eta Zeharkako Zergen Zerbitzuari atxikita dago.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 46.1 artikuluan ezartzen du funtzionarioentzako gordeta dauden lanpostuak lanpostu zerrendetan ezarritakoaren arabera beteko direla, lehiaketa eta izendapen askeko sistemen bitartez.

Arabako Foru Aldundian indarrean dagoen lanpostu zerrendak ezartzen duenez, Ondare Eskualdaketa, eta EJDen eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergen Atalaren buru lanpostua Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioek beteko dute lehiaketa bidez.

Arabako Lurralde Historikoko aurrekontua gauzatzeari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik, Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak eman duen 220 zenbakiko aurretiazko fiskalizazioaren aldeko txostena aztertu da.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren. Bestalde, ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritik,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Deialdia egitea, Zeharkako Zergen Zerbitzuko Ondare Eskualdaketa, eta EJDen eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergen Atalaren buru lanpostua (kodea: 1086.001) berariazko lehiaketa bidez betetzeko.

Bigarrena. Onartzea deialdia arautuko duten oinarriak eta parte hartzeko eskaera orria (I. eta II. eranskinak).

Hirugarrena. Argitaratzea deialdi honen xede den lanpostuari esleitutako zeregin eta egitekoen zerrenda (III. eranskina).

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikuluekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 9a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

**I. ERANSKINA****ONDARE ESKUALDAKETA, ETA EJDEN ETA OINORDEKOTZA ETA DOHAINZEN GAINKO ZERGEN ATALAREN BURU LANPOSTUA BERARIAZKO LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK (KODEA: 1086.001)****LEHENENGOA.- DEIALDIAREN XEDEA.**

Deialdi honen xedea da hutsik dagoen Ondare Eskualdaketa, eta EJDEN eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergen Atalaren buru lanpostua (kodea: 1086.001) berariazko lehiaketa bidez betetzea.

BIGARRENA.- LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA:

| | |
|-----------------------------|-------------------------------|
| Sailkapen taldea: | A |
| Sailkapen azpitaldea: | A1 |
| Destino-osagarriaren maila: | 26 |
| Berariazko osagarria: | 45.614,10 euro |
| Hizkuntza eskakizuna: | 4, derrigortasun datarik gabe |
| Lantoki herria: | Gasteiz |
| Dedikazioa: | esklusiboa |
| Ordu prestasuna: | 60 ordu |

HIRUGARRENA.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioa izatea, A1 azpimailakoa izatea, honako eskala hauetakoa: Administrazio Berezia, Zerbitzu Bereziak, Eginkizun Bereziak edo Administrazio Orokorra, Teknikariak edo horren balioekidekoa izatea, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz.

Deialdi hau argitaratu aurreko bi urteetan behin betiko destinorik lortu ez izana, lehiaketaren, barne sustapenaren edo kanpoko hautaketaren bidez.

LAUGARRENA. - PARTE HARTZEKO ESKAERA

Lehiaketan parte hartzeko eskaerak deialdi honen II. eranskinean jasotako eredu normalizatuan aurkeztuko dira, bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari zuzenduta, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza, 5-behea; 01001 Gasteiz) edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako bulegoetako edozeinetan. Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaeran honako hauek jarri behar dira:

- Deialdi honen hirugarren oinarrian eskatzen diren betekizunak betetzen direlako adierazpena.
- Euskara azterketa egin nahi dutenek hala adierazi beharko dute eskaera orrian.
- Alegatzen diren merezimenduak. Merezimenduak ziurtagiri bidez egiaztatu behar dira, eta ezin da alegatu haiek badaudela Arabako Foru Aldundiaren administrazio agiritegietan.



Ez da honako hauen ziurtagiririk aurkeztu beharko:

- a) Arabako Foru Aldundiak aitortutako norberaren gradu finkatua eta antzinatasuna.
- b) Arabako Foru Aldundiko lanpostuetan egondako denbora, egindako lana baloratzeko.

Merezimenduak balioesteko erreferentzia data deialdia ALHAOn argitaratzen den eguna izango da. Ez dira kontuan hartuko eskaerak aurkezteko epearen barruan egiaztatzen ez diren merezimenduak, nahiz eta haien aipamena egin eskaeran.

Merezimenduak eta betekizunak ariketa batean egiaztatzen direnean, ariketa egin arte atzeratuko da aipaturiko erreferentzia data.

BOSGARRENA. - ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDAK

Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, bigarren diputatu nagusiordeak eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak Arabako Foru Aldundiaren Intraneten (Gurenet) emango du argitara onartuen eta baztertuen zerrenda, eta 3 egun balioduneko epea irekiko da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita, erreklamazioak aurkezteko. Epe hori igaro eta erreklamazioak ebatzita -horrelakorik egonez gero-, argitara emango da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

SEIGARRENA. - BALIOESPEN BATZORDEA

Merezimenduak, bai orokorrak bai berariazkoak, balioespen batzorde batek balioetsiko ditu. Horretako kideak bigarren diputatu nagusiordeak eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak izendatuko ditu. Haren osaera onartutakoen behin betiko zerrendarekin batera emango da argitara. Batzordekideen egokitasuna eta gaitasuna bermatuko dira eta, ahal den neurrian, emakumeen eta gizonen kopuruak orekan izango dira.

Batzordeburuak, idazkariak eta hiru batzordekideak osatuko dute batzordea.

Balorazio batzordeko kideak norberarena izango da beti; hau da, batzordean ezin da besteren ordezkari edo besteren kontura jardun.

Balorazio batzordeko kideen egokitasuna eta gaitasuna bermatzeko, deialdia egiten duen erakundeak behar den guztia egingo du haiek deialdiaren xede den lanpostuko eginkizunen berri jakin dezaten.

Balorazio batzordeak ebatziko ditu arau hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak, eta berak esango du nola jokatu behar den aurreikusi gabeko kasuetan.

Boto berdinketarik gertatuz gero, batzordeburuak izango du kalitate botoa.

Balioespen batzordea ezin izango da osatu eta ezin izango du jardun, gutxienez hiru kide bertan ez badaude, titullarrak zein ordezkoak, eta gainera, batzordeburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute nahitaez.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako egoeraren bat gertatuz gero, balioespen batzordeko kideek ezingo dute lan horretan jardun, eta deialdia egin duen agintaritzari horren berri eman beharko diote. Gainera, izangaiek kideak errefusatu ahal izango dituzte.

Hautapen prozesuko edozein unetan balorazio batzordeak jakinez gero deialdian parte hartzen duen norbaitek ez duela betetzen ezarritako betekizunen bat, prozeduratik bazter uztea proposatu beharko dio organo eskudunari, interesduna entzun ondoren, eta eskaeran azaldutako desadostasunak edo faltsukeriak zehaztu beharko dizkio.



Balorazio batzordeek hautaketa prozesuko edozein unetan eskatu ahal izango dituzte alegatutako merezimenduen balorazio prozesuaren edozein fasetan eragina duten jatorrizko agiriak.

Jarduteko prozedura une oro lotuko zaio Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoari.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketetan, IVAPeko ordezkari bat ere arituko da.

Balioespen batzordeak adituak izendatu ahal izango ditu; aditu horiek aholkulari moduan arituko dira beren espezialitateko gaietan, hitzarekin baina botorik gabe.

ZAZPIGARRENA. - LEHIAKETA AURRERA ERAMATEA

Deialdiak fase hauek ditu: A) Merezimendu orokorren fasea B) Berriazko merezimenduen fasea.

A) Merezimendu orokorrak

Fase horretan, gehienez, 13 puntu lortu ahal izango dira. Balorazioa honela egingo da:

1. Egindako lanaren balioespena

Lortu daitekeen gehieneko puntu kopurua (4,25 puntu) herri administrazioetan egindako lanaren bidez lortuko da, baremo honen arabera:

- a) 0,05 puntu, deituta dagoen lanpostu berdinean jardundako hilabete oso bakoitzeko; gehienez, 4,25 puntu.
- b) 0,035 puntu, deialdiaren gaia den lanpostuko eginkizun eta egitekoekin funtsean bat datozen buruzagitza lanpostuetan jardundako hilabete oso bakoitzeko, 3,25 puntuko mugarekin.
- c) 0,025 puntu jardundako hilabete oso bakoitzeko, deialdiaren gaia den lanpostua atxikita dagoen unitatean kudeatzen diren eginkizun eta egitekoekin funtsean bat datozen talde beraieko lanpostuetan, 2,25 puntuko mugarekin.
- d) 0,010 puntu deitutako lanpostuaren talde beraei dagozkion lanpostuetan jardundako hilabete oso bakoitzeko, 1 puntuko mugarekin.

Aurreko c) eta d) idatz zatietako emaitzak batuta, gehienez ere, 2,25 puntu lortu ahalko dira.

2. Antzintasuna

Aintzat hartuko da administrazio publikoaren zerbitzura egindakotzat aitorturiko antzintasuna. 3,5 puntu lor daitezke gehienez, hain zuzen ere, 0,012 puntu lanean egindako hilabete oso bakoitzeko.

3. Norberaren gradu finkatuaren balorazioa

Gradu finkatuarengatik, gehienez ere, 1,5 puntu emango dira, ondorengo banaketaren arabera:

- Eskatutako lanpostuarena baino bi maila altuagoa edo are altuagoa: 1,5 puntu
- Eskatutako lanpostuarena baino maila bat altuagoa: 1,25 puntu
- Eskatutako lanpostuaren maila berdina: 1 puntu
- Eskatutako lanpostuarena baino maila bat baxuagoa: 0,75 puntu



- Eskatutako lanpostuarena baino bi maila baxuagoa: 0,50 puntu

4. Titulu akademikoak

Eskatzen den lanpostua lortzeko beharrezkoak diren titulu ofizialez bestelakoak ere baloratuko dira, deialdiaren xede den lanpostuaren unitatearen egitekoekin funtsean duten lotura kontuan hartuta. Gehienez ere 2 puntu lortu ahal izango dira, honako baremo honen arabera:

- Doktore titulua: 1,5 puntu.
- Lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura edo gradu eta master baliokidea: 1,25 puntu.
- Ingeniaritza tekniko, unibertsitateko diploma, arkitektura tekniko edo gradu baliokidea: 1 puntu.
- Masterrak, diplomak eta unibertsitateen berezko bestelako tituluak, 300 ordu edo gehiagokoak: 0,75 puntu.
- Masterrak, diplomak eta unibertsitateen berezko bestelako tituluak, 200 ordu edo gehiagokoak: 0,5 puntu.

Ez dira baloratuko lanposturako derrigorrezkoa den titulua lortzeko beharrezkoak izan diren titulu apalagoak, ez eta merezimendu gisa baloratutakoak ere.

5. Prestakuntza ikastaroak

Eskatzen den lanpostuaren berezko eginkizunekin edo haietan jarduteko eskatzen diren trebetasunekin lotutako gaietan jasotako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak baloratuko dira.

0,50 puntu emango da 200 ordutik gorako ikastaroengatik, eta 0,25 puntu 100 ordutik gorakoengatik.

Iraupena kreditutan adierazten denean, kreditu bakoitzeko 10 ordu baloratuko dira, beste zehaztapenik ez dagoenean.

ECTS kredituak adierazten badira, kreditu bakoitzeko 25 ordu baloratuko dira.

Ikastaroen ziurtagirietan ordu kopurua edo kredituak zehaztu beharko dira; bestela, ez dira baloratuko.

Informatika arloan, ez dira baloratuko ofimatikako oinarritzko ikastaroak, ez eta balorazio batzordeak lanerako oinarritzotzat jotzen dituenak ere. Arabako Foru Aldundiaren berezko informatika aplikazioetako prestakuntza ere ez da baloratuko.

Ez dira baloratuko errepikatutako ikastaroak, ez eta segurtasuneko oinarritzkoak ere.

Ez dira baloratuko bukatu gabeko ikasgaiak, kredituak eta ikastaroak.

Atal honetan gehienez ere puntu 1 lortu ahal izango da.

6. Hizkuntzak

Jarraian ageri den taularen arabera balioetsiko da Europar Batasuneko hizkuntza ofizialen ezagutza (EAEn ofizialak direnak izan ezik), eta atal honetan gehienez ere 0,75 puntu lortu ahal dira:

- B-2: 0,25 puntu
- C-1: 0,50 puntu



- C-2: 0,75 puntu

B) Berariazko merezimenduak

Bi zati izango ditu:

zatia: lortu nahi den lanpostuko jardunarekin loturiko ariketa teoriko-praktiko bat egin beharko da. Probaren zati bat edo batzuk ahoz azaldu beharra sar daiteke haren barruan. Zati horretan, gehienez ere 13 puntu lortu ahal izango dira.

2. zatia: jokabideei buruzko elkarriketa egituratua egingo da, hautagaia lanpostuak eskatzen duen gaitasun profiltera, agintzeko eta pertsonak zuzentzeko gaitasunetara eta antolaketako gaitasunetara egokitzen den neurtzeko helburuarekin. Zati horretan, gehienez ere 13 puntu lortu ahal izango dira.

Elkarriketa hori egiteko bakarrik, balioespen batzorde bat eratu da. Bi kidek osatuko dute, eta elkarriketak egiteko homologazioa eduki beharko dute. Emandako puntuazioa balioespen batzordeari aurkeztuko zaio eta hark guztirako puntuazioari erantsi beharko dio. Haren osaera onartutako behin betiko zerrendarekin batera emango da argitara.

Destinoa esleitzeko lortu beharreko gutxieneko puntuazioa:

Gutxienez 2,50 puntu lortu beharko dira merezimendu orokorren fasean, 6,50 puntu berariazko merezimenduen lehenengo zatian adierazi den proban, eta 6,50 jokabideei buruzko elkarriketa egituratuan.

ZORTZIGARRENA. - EUSKARA JAKITEA

Euskara merezimendu gisa balioesteari dagokionez, baremo honen arabera egingo da, 86/1997 Dekretuak ezarritakoarekin bat etorriz:

- 1 HE: gehienez lortu ahal den puntuazioaren ehuneko 5.
- 2 HE: gehienez lortu ahal den puntuazioaren ehuneko 6,25.
- 3 HE: gehienez lortu ahal den puntuazioaren ehuneko 11.
- 4 HE: gehienez lortu ahal den puntuazioaren ehuneko 13,75.

IVAPen ziurtagiriaren edo baliokideren baten bitartez egiaztatu ahal izango da, edo bestela deialdi honen barruan egingo den azterketaren bitartez. Azterketa onartuen behin betiko zerrenda argitaratzearekin batera iragarriko da.

BEDERATZIGARRENA.- BERDINKETA, LEHIAKETA OSOKO PUNTUAZIOAN

Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek baliatuko dira puntuazioa ebazteko:

- a) Azpieskalan eta lanpostuaren mailan (lanpostuari esleitutako destino-osagarri gisa ulertuta) emakumeen ordezkaritza ehuneko 40tik beherakoa bada, emakumeei lehenetsuna emango zaie, ez bada, behintzat, beste hautagai batzuek sexu bereizkeriazkoak ez diren zioak dituztela neurri hau ez aplikatzeko, hala nola enplegu sustapenerako zailtasun bereziak dituen kolektiboren batekoa izatea.
- b) Berariazko merezimenduen faseko gehieneko puntuazioa, handienetik txikienera. Hala ere, berdinketak irauten baldin badu, merezimendu orokorren baremoan ezarritako gehieneko puntuazioaren arabera, handienetik txikienera. Merezimenduen puntuazio berdina ezarrita daukatenean, deialdiko oinarrietan adierazitako hurrenkeran.



- c) Berdinketak jarraitzen badu, bi kasuetan irizpide hauetara joko da, hurrenkera honetantxe: lehiaketan nondik parte hartzen duen, eskala, azpieskala eta klase horretan karrerako funtzionario gisa antzintasun handiena duena; karrerako funtzionario gisa antzintasun handiena duena; azkeneko behin betiko lanpostuan antzintasun handiena duena; administrazioan antzintasun handiena duena.
- d) Hala ere berdinketa ebazteko irizpide gehiago behar izanez gero, balorazio batzordeak zehaztuko du merezimenduaren printzipioari jarraiki.

HAMARGARRENA. - EMAITZAK ARGITARATZEA

Interesdunei jakinaraziko zaie merezimenduen balioespena. Haren aurrean erreklamazioak aurkezteko 10 egun balioduneko epea emango da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

HAMAIKAGARRENA. - DESTINOA ESLEITZEA

Balioespen batzordeak, aurkeztu zaizkion erreklamazioak ebatzi ondoren, izendapen proposamena egingo dio bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuari.

Esleipendunak lehiaketan lortutako lanpostuaz jabetu beharko du, eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko du, egoera hauetan izan ezik: lanpostuaz jabetzeko epea amaitu baino lehen deialdi publikoaren bitartez beste destino bat lortu izana; gerora sortutako ezgaitasuna; zerbitzu aktiboa ez den beste egoera batera iragan izana; edo bestelako ezohiko zioak, behar bezala justifikatuak eta deialdia egiten duen organoak ontzat emanak.

HAMABIGARRENA. - IZENDAPENA ETA LANPOSTUAZ JABETZEA

Jatorrizko lanpostua lehiaketaren ebazpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean utziko da. Salbuespenez, epe hori luzatu ahal izango da behar bezala arrazoitutako egoera batzuetan. Zerbitzuko arrazoiengatik jatorrizko lanpostua uztea atzeratu zaionari lanpostu berrian egindakotzat kontatuko zaio jatorrizkoa benetan utzi arte igarotzen den denbora.

Lanpostuaz jabetzeko data jatorrizkoa uzten den egunaren hurrengo izango da. Ebazpenak zerbitzu aktibora itzultzea badakar, lanpostuaz jabetzea lehiaketaren ebazpena argitaratzen den egunaren hurrengo hiru egun baliodunen barruan egin beharko da.

Lanpostuaz jabetzea langile funtzionarioen baimen, lizentzia, opor edo bestelako egoerak amaitu arte atzeratuko da, baldin eta funtzionario horiek zerbitzu aktiboari eusten badiote eta egoerak zerbitzua benetan ematea galarazten badu. Salbuespenez, eta behar bezala arrazoiu eta justifikaturiko arrazoiengatik, organo eskudunak horien gozamina etetea erabaki dezake.

Antolamenduko zioengatik hala egitea komeni denean, esleipen ebazpenean finkatu ahal izango dira jatorrizko lanpostua uzteko eta lanpostu berriaz jabetzeko data zehatzak.

Ezintasunen bat duten funtzionarioek lehiaketan parte hartzeko eskaera orrian bertan adierazi ahal izango dute eskatzen duten lanpostua egokitzeko beharra. Bana-banako elkarriketan balioespen batzordeak beharrezkoa deritzon informazioa eskatu ahal izango dio interesdunari eskatu duen egokitzapenari begira, bai eta eskumena duten organo teknikoaren irizpena ere egokitzapen beharrenduaren gainean eta lanpostu jakinaren zeregin eta egitekoekiko bateragarritasunaren gainean.

HAMAHIRUGARRENA. - AURKA EGITEA

Oinarri hauek, deialdia bera eta horretatik eta balorazio batzordearen jardunetik sortzen diren administrazio egintza guztien aurka egin ahal izango da, Administrazio Publikoaren



Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako kasu eta moduetan.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

II. ERANSKINA / ANEXO II
HAUTAKETA PROBETARAKO ONARTUA IZATEKO ESKABIDEA
SOLICITUD DE ADMISIÓN A PRUEBAS SELECTIVAS

Deialdia / Convocatoria

| | | | |
|------------------------------|--------------------------|----------------------|--|
| NAN / DNI | | Pasaportea/Pasaporte | |
| 1. abizena / 1º apellido | 2. abizena / 2º apellido | Izena / Nombre | |
| Helbidea / Domicilio | | | |
| Herria / Población | Lurraldea / Provincia | PK / CP | |
| Tel. mugikorra / Tel. móvil | | 2. Tel. | |
| E-posta / Correo electrónico | | | |

Adierazi gurutze batez aukera egokia / Señale con una cruz la opción que proceda:

Egiaztatzen duen Hizkuntza Eskakizuna / Perfil Lingüístico que acredita:

- HE3 edo baliokidea PL3 o equivalente HE4 edo baliokidea PL4 o equivalente

Zer euskara proba egin nahi duzu? / Prueba de Euskera que desea realizar:

- HE3 edo baliokidea PL3 o equivalente HE4 edo baliokidea PL4 o equivalente

Azterketak zein hizkuntz ofizialetan egin nahi dituen/Idioma oficial en el que desea realizar los exámenes:

- Euskara / Euskera Gaztelania / Castellano

EGIAZTATZEN DIREN MEREZIMENDUEN ZERRENDA / RELACIÓN DE MÉRITOS QUE ACREDITA

BESTE ADMINISTRAZIOETAKO LANPOSTUETAN EGINDAKO LANA

DESEMPEÑO DE PUESTOS DE TRABAJO EN OTRAS ADMINISTRACIONES

Soilik balioetsiko da egitekoen ziurtagiria aurkezten bada / Solamente se valorará si se aporta el certificado de funciones

1

2

3

GIZA BALIABIDEEN ZERBITZUA. FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA. ENPLEGU. MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA
SERVICIO DE RECURSOS HUMANOS. DIRECCIÓN DE FUNCIÓN PÚBLICA. DEPARTAMENTO FOMENTO EMPLEO, COMERCIO Y
TURISMO Y DE ADMINISTRACIÓN FORAL.

Probintzia plaza 14 – 3.a / Plaza de la Provincia 14 – 3º. 01001, Vitoria - Gasteiz

| IKASKETA TITULUAK / TÍTULOS ACADÉMICOS |
|--|
| 1 |
| 2 |
| 3 |

| PRESTAKUNTZA IKASTAROAK / CURSOS DE FORMACIÓN | ORDU KOP. Nº HORAS | NOIZ EGINA FECHA DE REALIZACIÓN |
|---|-----------------------|------------------------------------|
| 1 | | |
| 2 | | |
| 3 | | |
| 4 | | |
| 5 | | |
| 6 | | |
| 7 | | |
| 8 | | |
| 9 | | |
| 10 | | |

| EUOPAR BATASUNEN HIZKUNTZAK, EAE-KO OFIZIALAK IZAN EZIK IDIOMAS DE LA UNIÓN EUROPEA CON EXCEPCIÓN DE LOS OFICIALES DE LA C.A.V. |
|--|
| 1 2..... 3..... |

| | |
|---|---|
| Eskaera honen goiko aldean zehaztutako eskatzaileak eskatzen du adierazitako hautaprotetan onartua izatea, eta aitortzen du hemen jarritako datu guztiak egiazkoak direla, eta betetzen dituela parte hartu nahi duen hautaprotetan onartua izateko bete behar diren baldintza guzti-guztiak. | La/el solicitante, cuyos datos personales figuran en el encabezamiento de esta instancia, solicita ser admitida/o a las pruebas selectivas a que se refiere la presente solicitud, declara que son ciertos todos los datos consignados en esta instancia y que reúne todos y cada uno de los requisitos exigidos para ser admitida/o en las pruebas selectivas correspondientes |
| Vitoria – Gasteiz, (Data / Fecha)..... | IZENPEA / FIRMA |
| <input type="checkbox"/> | Baimena ematen dut emandako datuak "Lan publikoaren eskaintza" tratamendu jardueran sartzeko. Doy mi consentimiento para que los datos facilitados sean incluidos en la actividad de tratamiento "Oferta de empleo público" |

Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legediak ezarritakoa betetze aldera, jakinarazten dizugu zuk ematen dizkiguzun datuak sartuko direla Arabako Foru Aldundiaren "Enplegu publikoaren eskaintza" izeneko tratamendu-jardueran. Tratamendu-jarduera horren helburua da Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean zerbitzuak emateko langileak hautatzeko prozesuen kudeaketa eta jarraipena egitea eta parte-hartzaileei informazioa ematea.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu, betiere, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Bulegora zuzenduz, Probintzia plaza, 5, PK 01001 Gasteiz - Gasteiz (Araba). Informazio gehiagorako:
<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la legislación vigente en materia de protección de datos de carácter personal, le informamos que los datos que Vd. nos facilita van a ser incluidos en la actividad de tratamiento "Oferta de empleo público" titularidad de Diputación Foral de Álava cuya finalidad es la gestión y seguimiento de los procesos para la selección de personal para la prestación de servicios en la Administración General de la Diputación Foral de Álava, así como informar a los participantes del desarrollo de dichos procesos.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación y portabilidad que reconoce la legislación dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información:
<http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>



III. ERANSKINA

ONDARE ESQUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGAREN ETA OINORDETZEN ETA DOHAIN TZEN GAINEKO ZERGAREN ATALEKO BURUA

ZEREGINAK*

1. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren araudia eta haiekin loturik dagoena aztertzea eta analizatzea, baita hark sortzen duen dokumentazioa ere.
2. Atalera heltzen den dokumentazioa sailkatzea eta, haren ezaugarrien eta zailtasun mailaren arabera, ataleko langileei esleitzea.
3. Ataleko langileen lan teknikorako irizpide teknikoak finkatzea.
4. Ataleko jardun-plana eta lan prozedurak ezartzea eta planifikatzea, Zerbitzuaren buruarekin bateraturik.
5. Lan estrategia zehatzak proposatzea Zerbitzuaren buruari, inguruabar berezietan oinarrituta.
6. Ataleko langileek egindako zereginen eta plangintza betetzen den mailaren berri ematea Zerbitzuaren buruari.
7. Ohikoaz bestelako izapidetzea behar duten gaiak koordinatzea eta ebatzea.
8. Ogasuneko beste zerbitzu batzuekin koordinatzea ondare eskualdaketen, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergen kudeaketa haiekin batera egiten den jardunak eta prozesuak.
9. Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuari jakinaraztea eskualdaketen, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergen kudeaketari buruz onartutako jardun-irizpideak eta araudian egin diren aldaketak.
10. Zerga kudeaketaren eremuan iruzurraren kontra borrokatzeko daitezkeen ekintzak aztertzea.
11. Notarioei, aholkulariei eta oro har jendeari arreta pertsonala ematea, hala eskatzen duten guztietan, haiek planteatutako zalantza eta kontsultak ebazteko.
12. Zerga ereduak diseinatzen laguntzea eta haiek onesten dituzten foru aginduak idaztea.
13. AKGSArekin eta Ogasuneko beste zerbitzu batzuekin batera proposatu, analizatu eta koordinatzea zergen kudeaketako aldaketak, informatika proiektu berriak edo zerga kudeaketako informatika aplikazioetan aldaketak egin beharra dakartenak, haiek araudiaren aldaketei egokitzea eta haien funtzionamendua aztertzea.
14. Ataleko langileen lana koordinatu, gainbegiratu eta kontrolatzea, zereginak esleitzuz eta horien kontrola eginez.

(*) Dokumentu honetan zehaztutako zereginak beraren oinarri funtzionalarekin bat datoz. Hala ere, hierarkian gainetik daudenek hala aginduz gero, beste hainbat zeregin ere egin beharko dira, betiere eremu funtzional eta kategoria berekoak badira.